

Euskarazko lexikogintza juridiko-administratiboa. Larramendiren eragina

Andres Urrutia
Cesar Gallastegi

1. HASIERAKOA

Lehendakaritzako mahaia, entzuleak.

Egunon guztioi.

Euskaltzaindiaren historian, hauxe dugu XV. Biltzarra; hain zuzen ere, Akademiaren egitekoak eta, oro har, euskalgintzaren nondik norakoak gogoetapean jarri nahi dituen Biltzarra.

Hori dela eta, aste honetan gaiez gai eta alorrez alor gabiltza. Atzokoa eta here-negunekoa aditu eta gero, gaur joanari so egitea dugu helburu, hortik ere, zerbait ikas-teko asmoarekin.

Helburu horretan, zalantzarik ez, lexikoak berebiziko garrantzia du. Atzokoan horretan jardun arren, gaur ere, gure autuan behinik behin, gai berbera dakartzuegu, esan bezala, zer edo zer ekar dezakegulakoan. Aipa ditzagun gure abiapuntuak.

Badira euskararen tradizio lexikografikoan halako jarraitutasun lerroak hiztegi-gintzaren aldetik. Badira, orobat, hiztegiak, goitik behera eta xehetasun guztiekin euskara aztertzen duten hitz-bildumak. Gutxiago ditu euskarak, ordea, eremu lexiko jakin batetik hasi eta harenak biltzen dituztenak. Horri ekin nahi izan diogu oraingo honetan. Horretarako, hurbilen dugun esparru juridiko-administratiboa aztergai hartu eta horren barruan murgildu dugu geure burua.

Eta Larramendi aukeratu dugu hasikina. Jakin badakigu aurrekoak ere badirela (hala nola, Landuccio¹, Pouvreau², Harriet³ edota Urte⁴), baina andoaindarraren hiztegia⁵ dugu ziur asko euskararen ipi-apa guztiak zehatz eta mehatz landu zituen lehe-na, Euskal Herriko hegoaldean bederen.

1 AGUD, M. eta MICHELENA, L.: *N. Landuchio. Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562). ASJU-ren Gehigarriak X, Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, Donostia, 1958.

2 BILBAO, G.: «Pouvrearen hiztegi laukoitza». *ASJU* XXVI-2, 1992, 341-389. orr.

3 LAKARRA, J.A.: *Harrieten gramatikako hiztegiak* (1741). ASJU-ren Gehigarriak XVIII. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1995.

4 URKIZU, P.: *Pierre D'Urteren Hiztegia* (Londres 1715). Filosofi Letretako Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea, Donostiako egoitza, EUTG-Mundaiz, Donostia, 1989.

5 LARRAMENDI, M.: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Txertoa, Donostia, 1984.

Jarraian, mintzaldi honetan jorratuko ditugun lau gaiak aurkeztu nahi dizkizuegu:

a) Lehenengo kontua: Larramendik *Hiztegi Hirukoitza* idazteko gaztelaniazko *Diccionario de Autoridades* delakoa aurrean izan zuen eredu modura. Hori dela eta, lehenengo galdera hauxe da: Larramendik hiztegi horretako hitzen euskal ordainak eman zituen bakar-bakarrik? Edota, besterik ere jaso zuen (euskal foru eta legeen eduki eta tradizioetik, alegia)?

b) Bigarren puntu bati legokioke Larramendiren euskalgintza arakatzea, alor juridiko-administratiboaren ikuspegitik. Egiteko horretan baliatuko ditugu oraintsuko ikerketak.

c) Hirugarren galdera, beharbada, aurreko puntuan lexikogintza juridiko-administratiboaren ikuspegi linguistikoa osatzeko baliagarria izan dakiguke. Linguistikatik harago joan eta –zuzenbidearen izaera kontuan hartuta– ikertu nahi dugu semantikaren kutsuak nondik ematen duen norabidea. Asmo-hiztegia deitu diote horri batzuek.

d) Laugarrenez, Larramendiren eragina izango dugu aipagai. Iztueta, Lore-jokoa, XIX. mendeko hainbat itzulpen, Etxegarai, Arrue, oraintsuagoko idazle eta itultzaile batzuk... guztiok gara haren zordun.

Lau ardatz nagusien azalpena egin baino lehenago, aipa dezagun azterketarako mamitu dugun corpusa. Egin-eginean ere, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* hustu dugu, lexiko juridiko-administratiboaren osaketa egiteko. Aukeraketa horretan hitz juridiko eskusibo zein eskusibo ez direnak sartzen saiatu gara; beraz, hautaketarako erabili dugun irizpidea zabala eta malgua izan da. Corpus horren zerrenda zehatza, testu honen ondoan doa, inork erabilgarri iritiz gero, behar bezala aztertzeko.

2. LARRAMENDI: FORUA ETA EUSKARA

Larramendiren hiztegia agertu (1745) eta berrogei urte geroago, Aizpitarte lexikografo euskaldunak euskararen hiztegia osatzeko argibideak azaldu zituen Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen barruan (1781-1784). Bazuen hark euskal zuzenbidea jasotzeko asmoa eta gogo, hiztegi berrian ez baitzuten zokoratzeko honako hauek:

No se omitirán las voces que tengan relación con los usos, costumbres, leyes y fueros de las Provincias, procurando con este motivo dar una idea y facilitar la inteligencia y el conocimiento del carácter, gobierno y Leyes Municipales del País⁶.

Larramendiren aldetik, halako zerbait ere suma al dezakegu? Kontuan hartu behar da Larramendiren garaian, euren ajeak gorabehera, foruek bizirik zirautela Euskal Herri osoan; are gehiago, Larramendik, Foruak ezagutzeaz gain, horien alde idatzi zuen⁷. Erantzuna, hala ere, gure aldetik ezezkoa da, hurrengo lerroetan azalduko dugunez.

Hasteko, hurrengo kontua argitu beharko dugu: zergatik aukeratu zuen Larramendik *Diccionario de Autoridades* delakoa? Blanca Urgellek⁸ gure egilearen

6 AIZPITARTE, J.M.: «Carta de Aizpitarte a Peñaflores». *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa*. Imprenta del la Diputación de Guipúzcoa, San Sebastian, 1965, 104. or.

7 Vid. LARRAMENDI, M.: *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1969; LARRAMENDI, M.: *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1983.

8 URGELL, B.: «Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (I): oinarriko ezaugarri zenbait». *ASJU* XXXII-1, 1998, 109-165. orr.; URGELL, B.: «Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (II): sarrearen edukia». *ASJU* XXXII-2, 1998, 365-415. orr.; eta URGELL, B.: «Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (III): Gaztelania». *ASJU* XXXIII, 1999, 157-238. orr.

hiztegia errotik aztertu eta agerian jarri du *Diccionario de Autoridades* (aurrerantzean *DAut*) lanaren eragina. Besteak beste, Urgellek hurrengo baieztatzen du, Larramendik gaztelaniazko hiztegi hura hautatzearen inguruan:

Teoria berriek dioskute, gorago adierazi bezala, *DAut* eredutzat hartu izana ez dela kasualitatea, ez eta bertatik bertara alde batera utz daitekeen xehetasuna: gaztelaniazko hiztegirik onena —osoena— egin nahi izan zuelako izan zen, hain zuzen, zeren eta bere ageriko asmoa gaztelaniazko kultura osoa euskaratzea izan baitzen⁹.

Mitxelenak berak ere, Larramendiren jokabideari puntua atera, euskara bera gidaritzat hartuta:

Iztegi orren alderik txarrenak ontatik datoz batez ere: arrotzentzat, erdaldunentzat egiña izatetik, euskaldunentzat baiño gehiago. Zekizkien euskal-itzak —eta ugari eta ederki zekizkien— ipiñi izan balitu errenka, erdal-itzulpena aldamenean emanik, bestelako tresna geneukan orain eskuetan. Nola atzekoz aurrera egin zuen lana, ordea, erdal-itzak etorri-ala euskerara edo biurtuaz, erdaldunak arritu bearrez noski, ezta erraz jakiten euskalitz direlako orietan zer den entzuna edo irakurria eta zer den aldatua edo burutik burura asmatua¹⁰.

Hortaz, gure lehen galdera hauxe izan behar: erabili al zituen Larramendi zenak euskal foru erakundeak, euskal berbak jasotzeko eta haien gaztelaniazko ordainak euskaraz ere emateko? Aldiz, huts-hutsean itzuli zuen *DAut*-etik zetorrena, zegoena zegoela, besterik gabe eta foruen munduari muzin eginda?

Argumentuok bigarrenean garamatzate. Hasian hasi, irakurle jakinguratsuak gaztelaniazko hiztegia eskuan hartu eta hura biribiltzeko jorratu ziren idazle nahiz tes-tuen zerrendari men eginez gero, berehalakoan konturatzen da formula zabala erabili zela.

Euskal Herriari dagokionez, lehen liburukian beren-beregi aipatzen dira *Fueros de Vizcaya* direlakoak, gure lege bildumaren data bera (1330-1400 urte bitartekoa dela diote) zuzena izan ez arren. Lehen liburuki honetatik (1726) seigarren eta azken liburukira (1739), autore eta testuen hurrenkera nabarmen zabaldu da. Hartara, *Fueros de Vizcaya* direlakoek bere horretan jarraitzen dute, beste testu juridiko-administratibo askoren artean. Bestetik, esan behar da hiztegiaren iturrien artean Nafarroako testuak, Gipuzkoakoak eta Arabakoak falta direla.

Bizkaiko testuari berriro ekinez, argi dago *DAut*-en erabilitako idazkia *Foru Berria* dela, XVI. mendekoa, eta ez, ostera, aurreko mendeko *Foru Zaharra*. Besteak beste, bi aipamen izan daitezke argigarri, jatorrizko testua Bizkaiko Foruen bilduma berria dela egiaztatzeko. Lehenengoa *moza en cabello* dugu:

Moza en cabello. Significa lo mismo que doncella ò virgen. Es phrase antigua, que oy se conserva en Vizcaya, Astúrias, Galicia, y otras Provincias Septentrionales de España, con tal rigór, que la muger que no es tal virgen, aunque no esté casada, no puede andar con el cabello suelto, sino recogido con alguna cinta, ò cubierta la cabeza con alguna toca [...] *Fuerz. de Vizc.* tit. 12. de las prescripciones, 14. Denunciando contra ellos, que sien-do mozas en cabello, las desfloraron, y que se proceda contra ellos¹¹.

9 URGELL, B.: «Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (I): oinarritzko ezaugarri zenbait». 117. or.

10 MICHELENA, L.: «Euskal-iztegigilleak XVII-XVIII'garen mendeetan». *Euskera* VI, 1961, 11. or.

11 R.A.E.: Diccionario de Autoridades II (1729). Gredos, Madrid, 1990, 15. or.

12 R.A.E.: Diccionario de Autoridades VI (1739). Gredos, Madrid, 1990, 127. or.

Bigarren aipamena *sobrecarta* da, hau ere Bizkaiko Foruen bilduma berritik hartua: *Sobrecarta*. Se llama tambien la segunda provision, ù despacho, que dá el Consejo acerca de una misma cosa, quando con algun pretexto no han dado cumplimiento otras Justicias a la primera [...] *Fuerz. de Vizc. f. 92*. No habian sido llamados, ni oídos para dar las dichas cédulas, y cartas, y sobrecartas¹².

Baina beste berbarik bazegoen Bizkaiko Foru idatzian. Konparaketa egiteko nahikoa da Dario de Areitio foruzaleak Bizkaiko Foru berriaren inguruan idatzi zuen hiztegitxora jotzea¹³. Nekez aurkituko du azterleriak *DAut-en Fueros de Vizcaya* izenpean halako berbarik. Nekezago oraindik bertako hainbat esamolde juridiko, zuzenbide publiko zein pribatukoak.

Hartara, *DAut*-ek, ustekoa izan daitekeenez, Gaztelako sistema juridikoa jartzen digu begi-bistan, gaztelaniaz eramana eta ehotua. Larramendiren bidea ere, lehen esan dugun bezala, hortik doa, eta lexiko juridiko-administratiboaren hitzak ematerakoan, euskal ordainak ematen ditu, euskal foru zuzenbidearena aintzat hartu gabe. Noizbait aintzakotzat hartzen badu ere, ez bide propiotik, ezpada Gaztelako zuzenbidearen lorratzetik. Legez zein hizkeraz, Larramendirena ez da foru zuzenbideari adiadi egoten. Euskararen esparrurako ekartzekoak bestetik garraiatzen ditu¹⁴.

Hala ere, salbuespen modura, gure ikergaiari dagokion berba bat topa dezakegu *HH*-an, gaztelaniazko hiztegian ez datorrena, oker ez bagaude. Berba hori *auzolan* dugu. Euskal berba hori emateko erdarazko sarrera bat asmatu bide du, *trabajo comun de todos los vecinos*, hain zuzen ere¹⁵. Antzera gertatzen da *HH*-ko beste sarrera batekin, *HH*-an *Alcalde de sacas en Guipúzcoa* delakoarekin, hain zuzen. Kasu horretan jatorrizko iturriaren moldaketa dagoela esango genuke: *DAut-en alcalde de sacas* badator sarrera modura, baina Larramendik, sarrera horrez gain, Gipuzkoako eremuari begira egokitzapen bat egin bide du. Nahita ala nahigabe?¹⁶

Laburbilduz, Larramendik gaztelaniazko hiztegia –eta beraz, Espainiako kultura eta zuzenbidea– euskaraz ematea zuen helburu; hori dela eta, euskal gizartearen berezko kontzeptu eta erakunde askorik ez dugu aurkituko, salbuespenak salbuespen.

3. LARRAMENDIREN HIZTEGI HIRUKOITZA: LEXIKO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN OSAERA

Larramendik Gaztelaniazko hiztegiarekiko duen menpekotasuna finkatuta, bigarren galdera, hasieran aurreratu bezala, hauxe litzateke: zer baliabide linguistikoki erabili zituen Larramendik hitz juridiko-administratiboak euskaraz emateko? Ezerezetik asmatu al zituen berbak? Lehendik euskararen baitan zegoena hartu eta idatziz jarri zuen? Ez da erraza kasu guztietan erantzuna zein den asmatzea, baina Larramendik erabilitako prozeduraren lerro nagusiak hauexek direlakoan gaude.

Horretarako, Larramendik berbategiaren aurretik jartzen duen sarrera luze eta mamitsuan kokatuko gara. Larramendik, hitzaurre horretan, berba mota bi bereizten

13 AREITIO, D.: «Vocabulario del Fuero de Vizcaya». *El Fuero privilegios, franquezas y libertades del M. N. y M. L. de Vizcaya*. Publicaciones de la Excma. Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbao, 1977.

14 Hori dela eta, Camara de Castilla, Camara de Indias edota Camarista de Castilla bezalako sarrerak eta horien euskarazko ordainak topatuko ditugu Larramendiren *HH*-an.

15 *DAut-en trabajo, comun/comunal* eta *vecino* sarreraren inguruan ez dago horren arrastorik. Larramendik, aldiz, *HH-en trabajo en comun de todos los vecinos* jasotzen du eta *auzalana* ordain modura.

16 Larramendik *Corografía de Guipúzcoa* izeneko lanean erakunde horri buruz hitz egiten du. Vid. LARRAMENDI, M.: *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*. 93-94. orr. Hala ere, testuan esan bezala, sarrera berria, beharbada, *HH*-aren patologiaren baruan kokatu beharko genuke. Blanca Urgellen lana oso interesgarria da *HH*-aren ibilbidea (gehikuntzak, galerak, akatsak...) ezagutzeko.

ditu: batetik, *voces del lenguaje vulgar* deitutakoak, eta, bestetik, *voces facultativas* izenekoak. Bigarren motako hitzei dagokienez, gure egileak dio euskara pobrea dela, baina aldi berean aberatsa.

Pobrea da «porque ninguno ha hablado ni escrito en vascuence en las Facultades y Ciencias, ni ha pensado que sea lengua oportuna para hablar en ellas»; hori dela eta, –Larramendik argi eta garbi adierazten du–, landu ezean, horrelako hutsuneak izango ditu hizkuntzak, edozein hizkuntzak. Beraz, ez da harritzekoa euskarak berba tekniko-en premia izatea.

Baina, aurreratu bezala, euskara aberatsa da hitz berezituen hutsuneak betetzeko: «tiene todas las necesarias propias de sus raíces [...] es la ocasión de buscar las voces oportunas que hasta ahora no ha tenido o tomándolas de otras lenguas, o inventándolas o formándolas de sus fecundas raíces». Lan horri ekingo dio gure idazleak hiztegiaren bitartez.

Hitzaurrean bertan ere, Larramendik maileguen bidea baztertzen du nolabait, eta hitz berrien faltan sormenaren alde egiten du, euskararen gorentasunaren izenean. Andoaindarrak aitortzen du bide horretan asmakizunetan jardungo duela, baina euskararen izaera errespetatuz. Eta jakintzen munduan hitz berriak erabiltzearen alde hiru arrazoi ematen ditu: lehena, hitz teknikoak, gehienbat, adituek landu eta erabili behar dituzte (pertsone horiek dira hitz teknikoen lehen erabiltzaileak edo erabiltzaile nagusiak); bigarrena, denboraz, hitz berrien erabilpena zabalduko da hiztunen artean; hirugarrena, euskaldun elebakarrak hobeto ulertuko du *HH*-aren proposamena, erdarazko berba edo mailegua baino.

Jarraian, Larramendik asmatze eta sortze lan horretan jorratu dituen bide batzuk azaltzen dizkigu, hurrengo hauek, hain zuzen: batetik, jakintzen izenak emateko (latinezko *-logia*) –*dea* atzizkiaren erabilpena; bestetik, –*dar/-tar* atzizkia; azkenik, gaztelaniazko *des-* eta *con-* emateko, hurrengo baliabideak erabiltzen ditu: tradiziozko *des-* aurrizkia, eta berak proposatutako –*kidatu*, –*kida* eta –*kidea* atzizkiak.

Guk, oraingo honetan, Larramendiren lana zuzenbidearen ikuspuntutik aztertu nahi genuke. Are gehiago, Larramendiren lanari begiratzea guretzat nahitaezkoa dela esango genuke. Zer dela eta? Larramendik hizkera espezializatuak –berbarako, zuzenbidekoak– behar duten hiztegiaren arazoari lehenengoz aurre egin ziolako.

Ezaguna denez, euskarak eremu juridikoan tradizio falta handia du¹⁷, ia erabatekoa idatzizko mailan, behinik behin. Zuzenbidearen eremuan euskararen erabilerririk ez badago, orduan jakintza horretako hitzak ere ez dira izango, nora jo ez dugu izango. Larramendik berak *HH*-an euskarazko liburuen falta aipatzen duenean, ildo bertsutik, beste hau dio euskararen erabilerrari buruz: «*No hay libros manuscritos, papeles, ni procesos impresos*». Beraz, zuzenbidearen jakintzan ere, ez liburririk, ezta idatzeko tradizioirik.

Berbategiaren osatze lan horretan, zuzenbidearen oinarritzko hitzak emateko batez ere –lenguaje vulgar delakoari ere dagozkionak–, gure egileak entzunak eta irakurriak zituenak erabiliko zituen, ziur asko¹⁸. Bestalde, herriak erabili zein ez, zuzenbideko beste berba batzuk gaztelaniazko maileguen bidez aise eman zitezkeen. Horietako asko, besterik ez bada, Larramendik lehenengo aldiz jaso zituen idatzizko

17 Vid. URRUTIA, A. eta LOBERA, A. (arg.): *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1995, 57-86. orr.

18 Euskararen berezko hitzak: *iria, erria...* Erdararik aspaldian mailegatutako berbak eta orduko euskal berba arruntak: *gendea, leguea, paquea, debecatu, erreguña, erreque, testamentua, mendecua, borondatea...*

forman. Horrez gain, zenbait hitzen kasuan, esanahiaren zabalkundea erabiltzen du, ordainaren zehaztasun maila gutxituz. Inoiz ere perifrasiaren bidez ematen dira euskarazko ordainak¹⁹. Beste baliabide bat hitz elkartuena dugu. Eta, amaitzeko, atzizkien erabilera oparoa. Bide horiek guztiak erabiliz lortu zuen Larramendik gaztelaniazko *DAut*-en agertzen ziren berbak ematea. Hutsarte asko eta asko agertuko zitzaizkion gure idazleari, batez ere *voces facultativas* edo berba espezializatuak emateko orduan. Baina, esan bezala, Larramendiri multzo horretako berbak asmatzea zilegia iruditzen zitzaion.

Hala ere, esan behar dugu –beste egile batzuek ere aurretik azpimarratu duten moduan– Larramendik ez dituela ehuneko ehunean errespetatzen berak ezarritako irizpideak. Hori dela eta, hiztegian zehar, gauza bera adierazteko formula desberdinak topatzen ditugu edota aurkibidean ipinitako adibide batzuk testuaren barruan ez dira agertzen etab. (beraz, sistematikotasun falta). Hala ere, ezin dugu ahaztu zein zen Larramendik hiztegia idazteko orduan izan zuen helburu nagusia.

Jarraian, Larramendik berak aurreikusitako baliabideen erabilpena jorratuko dugu, nola ez, zuzenbide munduko adibideak aipatuz. Dena dela, irakurleak hurrengo lerroetan aurkituko duena gure ikerketaren laburpena da; hau da, halabeharrez eta leku faltaz, jasotako zerrenda eta taula guztien lagina baino ez da agertzen.

Besterik gabe, ekin diezaiegun andoaindarrak *HH*-aren hitzaurrean aurreikusitako bideei (lerro batzuk gorago gogoratu ditugu):

a) –*DEA*

Alteza / *Gaindea* (*gaintza, garaitza*); Aptitud / *Gayendea* (*gaigoa, cintzoera, cintzotasuna, entreguera*).

b) –*DAR* / –*TAR*

Izen modura: Ciudadano / *Iritarra* (*uritarra*); Edicto / *Naidarra*. Izenondo erreferentziala: Eclesiastico / *Eleiztarra* (*eliztarra, bereterra*); Feudal / *Mepondarra*.

c) *DES*–

Gaztelaniaz *des*- hasitako hitzak emateko: Desagraviar / *Desiraindu*; Desgobierno / *Desgobernua, Desorondea, Desantzaera*. Antzeko adierak: Divorciar / *Desezcondu*; Negligencia / *Deslaya*.

d) –*KIDATU*, –*KIDA* eta –*KIDEA*

Lehenengo atzizkia Larramendik aditzak sortzeko erabiltzen du, gehienak *con*-hasten direnean: Cohabitar / *Vizquidatu*; Convocar / *Deiquidatu* (*osquidatu*). Bestelakoak: Amancebarse / *Oaquidatu* (*gaztelimuritu*); Fundar / *Ondequidatu*.

Bigarren atzizkia ere erdarazko *con*- adierazteko: Concession / *Emaquida* (*utzi-quida*); Constitución / *Neurquida* (*estatuto, ordenanza, arauquida*). Bestelakoak: Fabrica / *Equida* (*equidandea*); Fundacion / *Ondequida*

Asmatutako hirugarren atzizkiak antzeko erabilera du: Coheredero / *Primuquidea*; Complice / *Gaistaquidea*.

¹⁹ Besteak beste, Abogacia / *Letradunac* darabilten beargaya, Abogar / *Aucietan iñoren favore hitzeguitea*, Amnestia / *Gaitzeguin gucien barcacioa* edota Pedaneo / *Erri charren alcatea*.

Dena dela, Larramendik beste aurrizki eta atzizki asko erabili zituen euskarazko ordainak gertu izateko. Argi eta garbi errepikatu behar dugu guztien aipamena ezinezko bihurtu zaigula luzera mugatua duen artikulua honetan; beraz, erabilera guztien hautaketa laburra egin behar izan dugu baliabideen eta adibideen aldetik²⁰. Aurrizkiei dagokienez:

a) *BIR-* / *BER-*

Gaztelaniazko *re-* itzultzeko: *Recobrar* / *Bircobratu* (*berriz cobratu*); *Reforma* / *Berteraua*

b) *CE-*

Gaztelaniazko *in-* hasieradun berbak eta ezezkotasunari lotutako beste batzuk emateko: *Ilegal* / *Celegarra*; *Impugnar* / *Cedali*, *cedalitu*, (*contraesan*).

c) *CONTRA-*

Contracedula / *Contrachartella*; *Contravenir* / *Contraetorri*.

Atzizkiei dagokienez:

a) *-ARI*

Subjektua: *Constituyente* / *Neurquidaria*; *Contrahiente* / *Barbildaria*

b) *-EZA*

Gaztelaniazko *in-* hasieradun berba batzuk emateko: *Indigno* / *Dogayeza* (*ezdiña*, *dogaibaguea*); *Inhabil* / *Gayeza* (*cegaya*, *cintzoera*, *entregueza*).

c) *-GABE* (*-BAGUE*)

Gaztelaniazko *in-* hasieradun berba batzuk emateko, besteak beste: *Anonymo* / *Icemgabeea* (*icembaguea*, *icenzaca*); *Derogar* / *Indarbaguetu* (*indarcaiztu*).

d) *-GAITZ*

Gaztelaniaz *des-* hasiera emateko, gehienetan: *Desacatar* / *Ohorecaiztu* (*eiderguetu*, *deseidertu*, *desohoratu*); bestelakoak: *Derogar* / *Indarbaguetu* (*indarcaiztú*); *Invalidar* / *Baliocaiztu* (*baliobaguetu*).

e) *-GETU*

Gaztelaniaz *des-* hasiera emateko: *Desacatar* / *Eiderguetu* (*deseidertu*, *desohoratu*, *ohorecaiztu*); *Desavecindarse* / *Erritarguetu*

f) *-GINTZA*

Escribania / *Escribauquintza*; *Notaria* / *Notariquintza*.

g) *-GOA*

Clausura / *Ichigoa*, *ertsigoa*; *Copilacion* / *Bilgoa*.

h) *-GOKIA*

Izenak eta izenondoak: *Legitima* / *Legoquia*; *Municipal* / *Irigoquia*.

i) *-KIA*

Arbitrio / *Bidarquia*; *Bienes dotales* / *Dotequiac*.

²⁰ Vid. AZKARATE, M.: «Larramendiren hitz-eraketa» in J. A. Lakarra (arg): *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendea (1690-1990)*. Andoingo Udala-Euskaltzaindia-Gipuzkoako Foru Aldundia-Eusko Jaurlaritz, Andoain, 1992, 207-219. orr.; LAKARRA, J. A.: «Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruan». *ASJU* XIX-1, 1985, 9-50. orr.

j) –KINA

Subjektuak: Embaxador / *Bialquiña*; Malhechor / *Gaiztaquiña* (*gaizguillea*).
Bestelako izenak: Cautela / *Beaquiña* (*oarpea*); Industria / *Duiquiña* (*duiquindea*).

l) –KINDEA

Albaceazgo / *Atzenaiquindea* (*azquen nayen equintzá*). Beneficio eclesiastico / *Eleizaco onequindea*.

m) –KIRO

Gaztelaniazko -mente adierazteko: Legalmente / *Legarqui* (*legarauqui*);
Nacionalmente / *Dierritarqui*.

n) –TIA

Izenak eta izenondoak: Pendencia / *Ezpaitia* (*jaitea*); Pacifico / *Paquetia* (*paquetsua*); Sagrado / *Donatia* (*donaquia*).

Gainera, atzizkien pilaketa ere maiz erabiltzen du Larramendik, esaterako: -KIDA eta -GOA uztartuz: Cofradía / *Anaiquidagoa* (*ballerá*) edota Inducimiento / *Arquidagoa*.

Esan bezala, atzizki eta adibideen zerrenda askoz luzeagoa da, baina, leku faltaz, hemen utzi behar dugu nahitaez²¹. Baina, aurrera egin baino lehenago, Larramendik atzizkiekin zer nolako sareak, zer nolako hitz-kateak sortzen dituen aipatu nahi dugu. Hona hemen adibide argigarri bat: Ley / *Leguea*; Legal / *Legarra*, *legatarra*; Ilegal / *Celegarra*; Ilegalidad / *Celegardea*; Legalmente / *Legarqui*; Ilegalmente / *Celegarqui*.

4. LARRAMENDIREN HIZTEGI HIRUKOITZA: LEXIKO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN BILBADURA SEMANTIKOA

Larramendik hiztegia nola osatu zuen ikusi eta gero, sistemaren barne koherentzia aztertuko genuke, hau da, sistema hori gauza den esan nahi duena esateko, berez duen edo dagokion alorrean, alegia, gure kasuan, esparru juridiko-administrati-boan. Horretarako erabiliko ditugu zuzenbidearen baitan ardatz nagusizat har daitezkeen atal eta terminoak.

Esan dezagun, ezer baino lehen, Larramendiren hasierako baldintzak ikusirik, arrakasta lortzea zail zamarra zitzaiola (gogoan izan behar da, nahitaez, zuzenbideko hizkeraren ezaugarri garrantzitsuenetarikoen artean hiztegi berezitua eta zehaztasuna daudela)²². Horretan, lehen esan dugunez, Mitxelenak idatzi zuena aintzat hartuz gero, jesuitarena ezinaren bidetik ere ikus daiteke.

Hona hemen, labur-zurrean, gaztelaniazko aniztasunari²³ (eta *DAut*-en datorrena irakurri eta gero) erantzun beharraren eraginez dudazkoak gerta daitezkeen hitz andanak:

21 Larramendik erabiltzen dituen beste atzizki batzuk hauek dira (gure ikerketaren laburpen honetan sartu ez ditugunak): -aldi, -gari, -gile, -kada, -keria, -kizun, -le, -men, -oso, -pe, -te, -talde, -tasun, -ti, -tsu, -tun/-dun, -tura, -txo, -tza/-za, -tzaka, -tzaille-tzar, -tzai, -zale, -zko... Bestetik, aditz-izenak eta hitz-elkarketa ere alde batera utzi behar izan ditugu testu honetan.

22 Vid. URRUTIA, A. eta LOBERA, A. (arg.): *Ibidem*. 19-56. orr.

23 Zuzenbidearen munduan antzeko esanahia duten hitz andanak ditugu; gaztelaniari dagokionez, hor daude, besteak beste, *pacto*, *compromiso*, *acuerdo*, *asociación*, *arreglo*, *convenio*, *concierto*, *tratado*, *trato*, *negocio*, *transacción*, *contrato*, *capitulación*, *estipulación*, *compromiso*, *ajuste*...; berdin gertatzen da hurrengoekin: *autorización*, *asentimiento*, *benéplácito*, *concesión*, *consentimiento*, *gracia*, *licencia*, *patente*, *permiso*, *poder*, *prerrogativa*, *privilegio*, *visado*... ; edota *ciudadanía*, *habitantes*, *nación*, *patria*, *pais*, *pueblo*, *súbditos*... Multzo horiek gaztelaniaz garatu badira, nola eman, ordea, euskaraz? Horra hor zuzenbidearen hizkerak duen eronketariko bat.

a) Gaztelaniazko *concordia* eta *constitución* berbek esanahi desberdina dute. Larramendiren hiztegiaren honetara agertzen dira:

Concordia / *Arauquida* (*ustequida*)
Constitucion (estatuto, ordenanza) / (*Neurquida*) *arauquida*

b) Antzera gertatzen da antzeko beste bi berba hauekin, *ley* eta *reglamento*:
Derecho (*ley*) / *Araudea* (*neurtartea*)
Reglamento / *Araudea*, (*araua*)

c) Beste adibide bat:
Criminacion / *Salaqueta*
Delacion / (*Salá*, *salaquera*), *salaqueta* (*gaizguertzea*)

e) Zerrenda gehiegi ez luzatzeko, azken adibidea:
Actor (acusador) / *Salatzallea* (*salataria*)
Delatante (delator) / *Salatzallea* (*gaizguertaria*)
Sindico / *Salatzallea*
Soplón / *Salatzellea*

Kontu honekin ere ez dugu luzatu nahi, baina, laburbilduz, esango dugu *HH*-ak nekez helduko diela hizkera juridikoaren konplexutasun eta berezitasunei. Ezin ahaztu, ordea, Larramendi gidatu zuten helburuak zein ziren, hiztegiaren balorazio orokorra egin aurretik.

5. HIZTEGI HIRUKOITZAREN ONDORENGOAK, LEXIKO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN ARLOAN

Azken urteotan Larramendiren irudia eta egitekoak berritu badira ere, lehenengotik datorkiguna zertan dagoen eta orainokoa nondik gauza daitekeen, horra hor gure kontua.

Azken hiru mendeotan, Larramendi izan da nahitaezko zimentarria lexiko juridiko-administratiboarekin harremanetan ibili diren guztientzat. Alde edo kontra, osorik zein zatika, Larramendiren ekarria ezinbestekoa izan da gaztelaniazko testugintza juridiko-administratiboa euskaratzeko unean. Geroago, Euskal Herriari ikuskera berria ekarrita, euskal abertzaletasunak –Sabino Aranak eta bere jarraitzaileek– hondoratu nahi izan zuten Larramendiren lan osoa.

Hiru mende horietan, hamaikatxo izan dira haren segiziorako eraspina erakutsi dutenak. Beude hemen, horren argigarri, berrikitan ageri diren hiruzpalau autu²⁴. Lekuaren premiaz, Larramendiren ereduari bete-betean jarraitu zioten egile bi aipatu nahiko genituzke. Bien bizitza eta lanetan, bitxia bada ere, XIX. mendeko euskal historia eta politikagintzaren joera nagusiak islatzen dira: batetik, Antzinako Erregimenaren eta Foru Sistemaren defentsa eta, bestetik, liberalismoa eta horri daxtekion sistema politiko berria.

Bi egileek euskararen erabilpena gai juridiko-administratiboetan bultzatu zuten eta bi-biak lan horretarako Larramendiren hiztegiaren baliatu ziren. Hala ere, ez zuten oihartzunik ez jarraitzailearik izan.

24 Vid. SARASOLA, I.: «Larramendiren eraginaz eta» in R. Gómez eta J. A. Lakarra (arg): *Euskaralaritzaren historia, I: XVI-XIX. mendeak*. ASJU-ren Gehigarriak XV. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1992, 313-324. orr.

A) *Jose Felix Amundarain Muxika*

Jose Felix Amundarain zegamarra (1755-1825) urte luzez Mutiloko bikarioa izan zen, hogeita hamalau urtez, hain zuzen ere, heriotzak deitu arte. Apaiz horren izena eta izana ezezaguna izan da euskal literaturaren historian, baina apurka-apurka zegamarraren bizitza korapilatsua eta lan eskergea ezagutzen ari gara.

Lehenik, Cadizko Konstituzioa euskaraz azaltzen zuen lanaren berri izan genuen, Juan San Martinek argitaratutako artikulu baten bidez²⁵. Katexima politikoa zen testu hura, umeen eskoletan erabiltzeko pentsatua; hala ere, euskal letretan ohikoa ez zen gaia jorratzen zuen. Lau urte geroago, San Martinek berak eskuizkribuaren faksimilea argitaratu zuen²⁶. Baina argitaratutako eskuizkribua anonimoa zen eta gure lagun maiteak, Angel Ibisate jaunak²⁷, egilearen izen-abizenak argitu zizkigun. Une horretan jaio zen Amundarain euskal literaturaren historiarako.

Bigarrenik, 1998an, Antton Idiakez, Pello Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezolak Amundaraini buruzko ikerketa plazaratu zuten²⁸. Lan bikain horri esker, Amundarainen bizitza eta lana hobeto ezagutu ditugu.

Hirugarrenik, Euskaltzaindiaren Kongresu honen abagunea aprobeztatuz, orain arte ezezaguna izan den euskarazko testu bat lehenengoz plazaratu nahi genuke. Testu horren berri Gotzon Iparragirri esker izan genuen (mila esker hemendik). Legelari euskaldunontzat pozgarria izan behar da Hego Euskal Herrian euskaraz dugun lehen lege-testu osoa ezagutzea –82 artikuluz osatua–, 1820ko irailean Madrilgo Gorteeke emandako araudi baten gaineko itzulpena, alegia. Testu horren esaldi batzuk geroago aipatuko ditugu.

Gure gaiari helduz, Mutiloko bikarioa ideia berrien aldekoa da, are gehiago, liberalismoaren jarraitzaile amorratu agertzen zaigu. Hori dela eta, Hirurteko Liberalean, erregimen politikoa berria euskaldunen artean zabaldu eta sendotzeko lan egin zuen. Horregatik, eskoletan erabili beharreko eskuliburua edota herri txikienetako biztanle guztiek ere ezagutu behar zuten legea euskaratu zituen. Bi kasuotan Amundarainek hitz teknikoak behar zituen, zuzenbideko berbak, hain zuzen ere. Liberalismoak zabaldu nahi zuen hizkera berria ematen, beraz, nahiko beharleku izan zuen gure idazleak. Lan horretarako Larramendirengana jo zuen, askotan *HH*-ak proposaturiko berbari mailegua erantsiz, ikusiko dugun moduan.

Amundarainen testuetatik hartutako adibide batzuk jasoko ditugu jarraian eta bertan Larramendiren eragina norainokoa den argi eta garbi ikusiko du irakurleak.

1. Hasteko, *Jaquin-bide Iritarautia* delako lanean agertzen diren pasarte batzuk aipatuko ditugu, handik eta hemendik hartutako galdera solte batzuk, alegia (gogoratu idazkia katexima politikoa dela, hau da, galdera eta erantzunez osatutako lan didaktikoa). Aukeraketaren bidez Larramendiren eragina azpimarratu nahi dugu:

26 J.F.A.: *Jaquin-bide Iritarautia Españiaco Neurquidaren* [..]. Arartekoa-Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1991.

27 Vid. IBISATE, A.: «El original castellano del Jaquin-bide Iritarautia del Dr. D. J. F. A.». *Scriptorum Victoriense* 39, 1992, 222-227. orr.; IBISATE, A.: «El Doctor Don José Felix Amundarain (Cegama 1755-Mutiloa 1825), autor del Jaquin-bide Iritarautia (1820)». *Boletín de la R.S.B.A.P. L*, 1994-1, 159-169. orr.; SAN MARTIN, J.: «Dr. D. Jose Felix Amundarain Mujika eta Cadiz-ko Konstituzio euskaratuaz zenbait ohar». *Egan* L, 1998, 242-244. orr.

28 IDIAKEZ, A. et al.: *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko Euskal idazle ezezaguna*. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Lazkao, 1998.

¿Para conseguir esta independencia qué es lo que establece la Constitución?	¿Ez-ichiquitasun au iristeco, cer erabaquitcen du neurquidac, edo Constitucioa?
¿Qué diferencia hay de causas civiles á causas criminales?	¿Cer banaita, edo diferencia dago auci gozandecoan, eta obendunen artean?
¿Basta esto para que una Nacion esté bien gobernada?	¿Asqui da au Dierria, edo Nacioa ondo gobernaturic egoteco?
¿Que son las diputaciones provinciales?	Cer dirade Provinciatarren Ecautac?

2. Bigarrenez, hona hemen gaur bertan aurkezten dugun lege testuaren pasarte batzuk. Batetik, arautegiaren atariko testutik jasotako lerro batzuk idatziko ditugu:

El Rey se ha servido dirigirme el decreto siguiente: Don Fernando VII, por la gracia de Dios y por la Constitución de la Monarquía española, Rey de las Españas, a todos los que las presentes vieren y entendieren, sabed que las Cortes han decretado lo siguiente [...]	Erreguec bialdu dit ondorengo erabaquia: Don Fernando VIIa, Jaungoicoaren graciaz eta Españañ Bacarondearen Neurquidaren edo Constitucioaren bidez, aurreco erabaquiac ikusten ta aditcen dituzten guciai: jaquin ezazute Uri-Batzarreac erabaqui dutela ondorengoa.
--	--

Hona hemen beste pasartetxo bat, araudiaren lehenengo artikuluari dagokiona:

Artículo 1. Todo español, desde la edad de dieciocho años hasta la de cincuenta cumplidos, está obligado al servicio de la Milicia Nacional.	1. berecindea. Españañ gucia, emezor[t]ci urtetit berrogueta amar urte cumplitcerañooca, dago obligaturic Di[e]rrico guda[r]tari servitcera.
--	--

Hortxe utziko dugu Mutiloko bikarioa, liberalismoaren joera eta hizkera berria Larramendiren laguntzarekin gure herrian duintasunez gizarteratu nahi zuena. Eta segidan, kontrako pentsaera politikoa zuen idazleari helduko diogu.

B) Jose Pulo Ulibarri Galindez

Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) arabarrak –albaitaria ogibidez–, urte askotan herri administrazio eta politikagintzan parte hartu zuen. Abandoko hainbat kargu publiko bete eta herri horretako ordezkari izan zen Gernikako Batzarretan. Joera politiko absolutista zuen, Amundarainek ez bezala.

Ulibarri zinezko euskaltzalea zen: gure hizkuntza edonon eta edonorekin erabili nahi zuen, baita herrigintzan ere. Argibide modura aipatu daitezke haren desira betegabe bi: batetik, Espainiako Errege Fernando VII.ari euskaraz egitea eta, bestetik, Bizkaiko Foruak euskarazko bertsioa izatea.

Gure gaiari berriro helduz, ezaguna da Larramendiren eragina egile honengan, hiztegiari dagokionez. Zuzenbidearen ikuspuntutik adibide batzuk jasoko ditugu.

1. Ulibarriren *Gutunliburuak*²⁹ jasotzen duen berbategian (orain dela gutxi Patxi Galé García landu duena³⁰), Larramendiren *HH*-ak duen eragina begi-bistakoa da. Gure eremuari dagokionez ere –zuzenbidearen arloari dagokionez– eragina ia eraba-

29 Jose Paulo Ulibarri Galindez-en *Gutunliburua* izeneko ezkuizkribuaren facsimil gisako argitalpena. Diputación Foral de Álava, Gasteiz, 1975.

30 GALÉ GARCÍA, P.: «Jose Paulo Ulibarri Galindez. Hiztegia». *Euskera* XLV, 2000, 1021-1112. orr.

tekoa dela esan genezake: Ulibarrik Larramendiri kopiitzen dio. Froga modura, horietako hitz bakanen batzuk ilaran jarriko ditugu, Galé Garcíaren zerrenda erabiliz³¹:

Agripea (certificación), Aguintaria (comandante), Araisteguia (reclusión), Arartecoa (abogada), Auztepaite (transigir), Bacarkidorea (proconsul), Beatzalea (inspector), Beguiratza (inspector), Benaitaria (intendente), Berataratua (prescripto), Berautua (prescripto), Bialkiña (embajador), Biarkizaya (personero), Bidaguea (tirano), Bitartecoa (abogada), Boillandrea (corona), Borcha (violencia), Burupea (autoridad), Ciriakia (tentación), Corontaria (renteo), Cotiztatu (tributar), Cuturra (obligación), Diaburua (preboste), Diagueita (recluta), Dierondea (república), Dierria (nación)...

2. Baina Ulibarri ekintzetan ere nabarmendu zen. Esan dugunez, euskararen erabilera bizitzaren jarduera guztietan bultzatu nahi zuen. Horretarako, euskararen aldeko zenbait ekimen burutu zuen. Euskara edozein jarduera aurrera eramateko baliagarria zela uste zuen; hori dela eta, gutunak, kontratuak etab. euskaraz idatzi zituen. Esandakoaren froga modura, bi adibide aipatuko ditugu, bietan Larramendiren itzala garbia dela.

1830ean, Gernikako batzarretan berriz ere parte hartzeko ahaleginetan ibili zenean (esango dugu, bide batez, batzaraldi horretan euskara eskoletan bultzatzeko proposamena aurkezteko asmoa omen zuela), hurrengoa idatzi eta jaso zuen Ulibarrik bere gutunliburuan³² (azpimarra gurea da):

Gura neunke eguin balegui mezedea alde orretati aurkitzea *Alorde edo poderea* sartze-co Guernicaco batzarrean. Orco Erri batetic, nai dala ychaso ondocoa nai barrucoa, esateraco, bat bat doyan Erriti neu sartutia bigarrenez.

Gueure urteco Guernicaco batzarreco Naidarrac edo decretoetan aurkituco dau se erric biraldu cituen guizon bat bacarric Guernicaco batzarretara.

Bi urte geroago, hau da, 1832an, Madrilen emandako Errege Dekretu batzuk itzuli zituen, *Naidar Realac* izenburupean. Testu hori ere gutunliburuan dugu³³ eta, horietako batean –amnistia politikoari buruzkoan–, lehenengo artikuluan, honelako adierazpenak irakur daitezke:

Lengo[.] dagozan gustiac yuanic eta erbesteraturic gauza politicuec gaiti gueracen dire euren urradean edo libertadean, etorteco euren echetara eta euren ondasunecac jabetutera, [...]

Bigarrena[.] es aitu naidar edo decreto onegati diriala artzeco lengo empleo edo yardue-
ra bere sari edo soldatac len eukizituenac es, baña bai gueratzan dire ganeco Española
leguez escatu eta emoteco eta eukiteco edo ardiesi edo consedidu eguiteco.

Iruigarrena[.] iñori echaco erabetuco gauzaric ogen edo delituec eguiñac ile oneen amabos
garreneco eguneric basen len egon arren arturic salacio edo acusaciñoa.

Adibide labur hauek agerrarazten dute euskal idazlearen luma ondoan Larramendiren hiztegia bazegoela, zuzenbidearen berba berezituak ematen laguntzeko.

31 Hala ere, Larramendiren hiztegiaren ez datozenak ere badira Ulibarriren berbategiaren: Amia (tirano), Andiquitarra (real, regio), Bazcaera (regencia), Birdastu (recaudación), Bitegarri (decreto), Erabardea (sentencia), Erondea (regencia), Gaiztalecua (prisión, cárcel), Galostu (verdugo, ministro de la justicia)...

32 Jose Paulo Ulibarri Galindez-en *Gutunliburua* izeneko ezkuizkribuaren facsimil gisako argitalpena. 101-102. orr. (gutunliburuak duen orrien jatorrizko zenbaketa kontuan hartuta).

33 Jose Paulo Ulibarri Galindez-en *Gutunliburua* izeneko ezkuizkribuaren facsimil gisako argitalpena. Zenbaki gabeko orrialdea.

6. ONDORIOAK

Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzak* eman zuen urte luzeetan gaztelaniaz sorturiko kontzeptuak euskaratzeko bidea. Euskarak behar zituen horiek eta lan horretan Larramendiren lana egundokoa izan zen.

Egun ere, halakorik ez ote dugun maizegi egiten azalera daiteke. Zorionez, horretan ere badugu pausoa tentuz emateko aukera eta Larramendirena aintzat hartzeko, onean eta txarrean, zuzenean nahiz okerrean. Hona hemen azken gogoetak:

1) Lehen: lexikogintza juridiko-administratiboaren baitan, begirunea gorde behar zaio bai hizkuntzari, bai lege-sistemari. Horrek eskatzen du Euskal Herriko zuzenbidea ez ezik, inguruan ditugun sistema juridikoak ere bistan izatea.

2) Bigarrena: lexiko juridiko-administratiboaren normalkuntza lana adostasunaren emaitza izan behar da. Adostasun horretarako eragileak, gure kasuan, ez daude urrun: Herri Administrazioak, Justizia Administrazioa, Unibertsitateak, Lanbide Elkargoak...

3) Hirugarrena ere bada, gure gaurko harrokeria azpiratu eta beheratzeko. Egon ere, Larramendiren erakutsia hortxe legoke. Hark ondu zuenak balio mugatua izan zuen. Haren ekarritik ere badira gaur erabilgarri direnak, jakina (*emakida*, *largetsi*, *jabaria* edota *egikaritu* bezalako berbak). Baina gehiena historiak eraman zuen, haren ordezkoa ere deuseztatuta geratu zen bezala.

Gurea ere hortik joango al da? Hortxe dago gakoa: oinarriak ondo zertzea, euskararen geroa, eta, aldi berean, lexikogintza juridiko-administratiboan tinko bermatzeko. «Quien calla, otorga / *Enzun ta isil, bayezco biribil*» idatzi zuen Larramendik *Hiztegi Hirukoitzan*. Legelarioi hitz jario etengabea eta hutsala egotzi ohi digute gehienetan. Hori baino, gure arrazoiak azaleratu nahi izan ditugu, hizkuntzalariek eta legelariok batera jokatu behar dugulakoan.

Mila esker Euskaltzaindiari eta zuei, entzuleei, zuen arretagatik.

- *Eranskina: Hiztegi hirukoitzaren eduki juridiko-administratiboaren hautuzko zerrenda*

Gure lanari buru emateko, *HH*-aren gainean zuzenbidearen ikuspegitik egindako hustuketa jarriko dugu. Esan bezala, azterketarako erabili dugun corpusa da eta irakurleari Larramendiren lanaren nondik norakoak zuzen-zuzenean konsultatzeko aukera emango dio.

Jatorrizko lana ahalik gutxiena aldatzen saiatu gara. Hala ere, hautatutako hitzak aurkezteko moduari dagokionez, hona hemen ohar garrantzitsu batzuk irakurlearentzat:

- Gaztelaniaz sarrera-hitza eta horren ondoren azalpena datorrenean, guk azalpena ezabatu dugu behar-beharrezkoa ez den kasuetan. Hau da, sarreren erderazko zatia, *Abasto*, *la provision de mantenimiento*, laburtu dugu honetara: *Abasto*. Gaztelaniazko zatia, aldiz, osorik jaso dugu honen moduko kasuetan: *Cargo*, *empleo*; *Cargo*, *cuidado*; *Cargo*, *en las cuentas*.
- Jatorrizko testuko *Vease* delakoak *Ik*. deiaren bidez ordezkatu ditugu. Hala ere, gerta daiteke xede hitza ez agertzea *HH*-an (esaterako, *Letrado* / *Ik. Jurisperito* topatuko dugu hiztegian, eta *Jurisperito* sarreraren bila joanez gero, ez zaigu agertuko; hori gertatzen da xede hitz hauekin: *jurisperito*, *testificar*, *tornadizo*, *Cortes de el Reyno*, *instigar*, *dar a logro*, *asilo*, *borradu-*

- ra...). Bestalde, jatorrizko testuan “eta abar” adierazten duten dei eta ikur guztiak etab. formaren bidez ordezkatu ditugu.
- Hitzen familiak gehienetan mantendu ditugu (*Arbitrador, Arbitrar, Arbitrado, Arbitrariamente, Arbitrario...*).
 - Gure testua osatzeko, kontuan hartu dugu jatorrizko liburuki bakoitzean agertzen den *Fe de erratas* deritzon atala.

- Abad** / Aita; lembicicoa, lélena, lènengoa; nagusia, aundiena / *Abbas, atis*
- Abandonar** / Utzi, lajatu, largatu / *Derelinquo, is*
- Abandono** / Utziera, lajaera, largaera / *Derelictio*
- Abasto** / Otoranza, beardanez, ornitzea, janariaren ornidurá / *Cibaria, orum; cibaria congesta*
- Aberes** / Aberé
- Abigèo** / Talde baten, edo erdibaten lapurrá / *Abactor*
- Abil** / Gay, ajutuá, cintzoa, entregú / *Habilis, aptus, idoneus*
- Abilitar á uno** / Cintzotu, gay eguin / *Aptum, habilem efficere*
- Abilitado** / Cintzotua, gay eguiña / *Aptitudine donatus*
- Abintestato** / Testamentu bague, testamenturic eguingabe / *Abintestato*
- Abjurar** / Ezeztatu, cinez, juramentuz utseguin bat / *Abjuro, as*
- Abjuracion** / Ezeztatzea; desesaná, deserraná / *Abjuratio, nis*
- Abocarse** / Aurquetu, aurcatu / *Ex conducto convenire*
- Abogacia** / Letradunac darabilten beargaya / *Causidici officium*
- Abogada** / Artecoa, bitartecoa, arartecoa / *Advocata, patrona, ae*
- Abogado** / Letraduna, auzijarraya. Ik. Jurisperito / *Advocatus, causidicus, causarum patronus*
- Abogar en Pleytos** / Aucietan ñoren favore hitzeguitea / *In litibus pro aliquo dicere, causam alicuius dicere*
- Abolengo** / Aitonen etorquia. Ik. Linage
- Aboler** / Ik. Abrogar, derogar
- Abonar** / Ontzatú, ontzát emán / *Probo, as; approbo, as*
- Abonado** / Ontzatua, ontzat emaná, artuá / *Probatas, a, um*
- Abono** / Ontzátea / *Probatio, nis*
- Abonado en hazienda** / Aberatsá, dirutia, onic asco duena / *Locuples, pecuniosus, opulentus*
- Abortar** / Bertiztu / *Abortum facere, abortior, iris; abortio, is, ibi*
- Abortivo** / Bertitzá, mugaitzean jaioa, sortua, hume botatua / *Abortivus, a, um*
- Aborto** / Bertitzá, erditze gaitza, hume botatzea / *Abortus, us; abortio, onis*
- Abrogacion** / Indarguea, indarguetzea, indarbaguetzea / *Abrogatio*
- Abrogar** / Legueren bat indarguetú, indarbaguetú / *Abrogare*
- Absolver** / Norbait peccatutic, gaizquitic libretzat, ascaturzát emátea. Absolvitú, ascatur, deslotú / *Absolvo, is*
- Abusar, usar mal** / Gaizqui-usatzea, dongaró usatzea / *Abutor, oris*
- Abusar** / Gaizqui erabilli
- Abuso, uso malo** / Usadio gaistoa, dongueá / *Abusus, us*
- Academia** / Icasolá, jaquiñen, jaquintsuen, letradunen ballerá, bilgumá, batzarrea / *Academia, ae*
- Academico** / Icasolacoa, icasolarra, jaquintsuen balleracoa, bilgumacoa, batzarrecoá / *Academicus, a, um*
